

Katilinarenak



Katilinarenak

Jatorrizko izenburua: Les Catilinaires

Egilea: Amélie Nothomb

Itzultzailea: Joxan Elozegi

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Igel

MIKEL GARMENDIA

Egunero goizeko bostetan jaiki eta te beltza hartu ondoren idazteari, eskuz idazteari, ekiten omen dio Amélie Nothomb idazle emankorrak. Baditu aldekoak eta aurkakoak. Ezin ukatu, ordea, haren ezaugarri funtsezkoa: ausarta da, zuzena, dena hankaz gora jartzen duten horietakoa. Estiloaz harago doa, nik uste, kontua: bizitzaren aurrean duen jarrerak eragiten du haren idazkera: enfrontamendua da beti haren eleberrietan ardatza, bi pertsonaiaren arteko enfrontamendua edo pertsonaia baten eta egoera jakin baten arteko enfrontamendua. Dena ematen du Amélie Nothombek idazterakoan, busti egiten da, benetan sinesten du idazten duena. Eta hori nabaritu egiten da, eleberria irakurri ahala sentitzen baitu irakurleak zerbait ukitzen diola barruan etengabe, irakurlearen beraren sentimendu, uste eta enparauak ukitzen dituela, alegia. Eta hori estetika hutsa baino askoz harago doa, noski.

Argumentua, berez, ez da korapilatsua: Émile eta Juliette jubilatu-bikotea mendialdeko etxalde batera joan da bakardadean bizitzeko ametsa egia bihurtzera. Halako batean, ordea, Palamède, herriko medikua eta hurbilen duten auzoa, bisitan joango zaie eta ezin izango dute gainetik kendu, egunero joango baitaie handik aurrera etxera, arratsaldeko lauetatik seietera.

Émile eta Juliettek bereak eta bi egingo dituzte Palamède uxatzeko eta ahalegintze horixe izango da eleberri honetako erakustaldirik handiena. Baliabide guztiak erabiliko dituzte Émile eta Juliettek "bai" eta "ez" besterik erantzuten ez dien gizon enigmatiko bezain molestagarria uxatzeko: ironia fina, ironia kaustikoa, ankerkeria, irainak, mehatxuak...

Nothomben beste obsesioetako bati jarraiki, munstroak ere azalduko zaizkigu eleberrian. Horietan nabarmenena Palamèderen emazte Bernardette, zeinari, nahiz eta gupidarik batere gabe "kiste" deitzen dioten eta haren besoei, berriz, "garroak", irakurleak halako maitasun edo txera hartuko dion.

Esan bezala, dena jarriko digu hankaz gora Nothombek: zergatik daramagu barruan gizabidetsu izan beharra? Zer da lagun hurkoari laguntzea? Lagundu behar ote zaio? Ongiaren eta gaizkiaren arteko muga lausoan ibiliko gara eleberri osoan zehar, tarteka klasikoen aipamenak agertuko zaizkigularik, beti ere argumentuen indargarri.

Kontakizunean barrena sortzen diren egoera bakoitzean nola jokatu eta zergatik, horra Émileren kezka nagusia. Zalantza egiten du etengabe Émilek, eta zalantza eginarazten dio etengabe irakurleari, benetan haren lekuan jarrarazten baikaitu Nothombek, eta hori du, nik uste, meritu handiena. Liburu batek ezin gaitu irakurri aurretik geunden bezala utzi, edo Nothomben beraren hitzetan esanik: "Nola jarraituko dugu bada lehengo berberak izaten Céline-ren *Gauaren muturrerainoko bidaia* irakurri eta gero?"

Itzulpenari dagokionez, ongi hartu die tamaina itzultzaileak -lehendik ere itzulia baitzion beste obra bikain bat, *Durduzaz eta dardaraz* izenekoa- Nothomben estilo baliotsu bezain pedanteari, haren kontatzeko era biziari, hiztegi-zehaztasunari –esan dezagun, bitxitasun gisa, oso ederra dela J. Elozegik erabilitako aditza, kontakizunean zehar berebiziko garrantzia duena: *inpromatu*, ohiko hiztegietan topatzen zaila bada ere, kontestua argitzen duena eta, badaezpada ere esango dugu, nardatu, nekarazi edo "fastidiatu" esan nahi duena-. Ondo jaso dago, baita ere, Émilek, pertsonaia nagusietako bat izateaz gain, kontakizunaren narratzailea denak, etengabe darabilen garrantasun-doinua.